

WIKITOKI



WIKIRIKI

**2021-2022 ikerketa- eta
sorkuntza-egonaldien deialdia**

**WIKI elkarlanagatik
IRIKI irekitasunagatik
KIKIRIKI dei gisa**

Wikitokitik deialdia egin diogu esperimentazio irekiari. Abian jarri dugu elkarlanari lotutako aspektuen inguruko diziplinarteko ikerketa- eta sorkuntza-egonaldien deialdia.

Oinarrien laburpena

- **Proposamenen izaera:** WIKIRIKI diziplinarteko proposamen esperimentaletara, edozein formatu motakotara, zuzenduta dago. Proiektu berriak edo abian dauden proiektuak izan daitezke, aukera baldin badago horien fase berria edo alderdi zehatza Wikitokiren esparruan garatzeko.
- **Nori zuzenduta daude:** Egonaldiak edozein motatako pertsonetara eta taldetara (formaletara eta informaletara) zuzenduta daude, zeinen jarduera ikerketara, sorkuntzara edo sormen aplikatura lotuta dagoen.
- **Gaiak:** WIKIRIKI elkarlanaren inguruko proposamenera zuzenduta dago. Gai zehatzak irekiak eta askeak dira, baina, proposamenak bideratzen errazteko, Wikitokiren esperimentazio-esparruak proposatzen dira (Informazio gehiago *Izaera esperimental eta lantzeko gaiak* atalean).
- **Baliabideak:** Guztira 12 000 € (zergak barne), gutxienez 4 proiektu garatzeko, proiektuko 3000 €-ko aurrekontuarekin gehienez + Wikitokiren espazioetara sartzeko eta baliabide materialak zein inmaterialak erabiltzeko aukera, egonaldian zehar eskainitako laguntzaz gain.
- **Epeak:** Proposamenak 2021eko irailaren 30era arte (23:59ak arte) aurkeztu ahalko dira. Proiektuak bi txandatan burutuko dira: 2021eko urriaren 25etik aurrera eta 2022ko urtarrilaren 17tik aurrera. 2 eta 4 hilabete arteko iraupena duten egonaldiak.
- **Zalantzarik?**
 - 🌐 Laura Fernández, wikiriki@wikitoki.org
 - 🌐 Irailaren 16a, 17:30etatik 19:00tara: Online saio irekia deialdiaren inguruko zalantzak galdetzeko eta argitzeko.



AURKIBIDEA

- 1.- Nortzuk egiten dugu deialdi hau?**
- 2.- Zeintzuk dira deialdi honen helburuak?**
- 3.- Zeintzuk dira gure esperimentazio-arlo nagusiak?**
- 4.- Zeintzuk dira egonaldien ezaugarri nagusiak?**
 - > Nori dago zuzenduta deialdia
 - > Izaera esperimental eta landu beharreko gaiak
 - > Espero diren emaitzak
 - > Baliabide erabilgarriak
 - > Komunikazioa eta aurkezpena
- 5.- Nola parte hartu?**
 - > Egutegia
 - > Aurkezpen-modua
 - > Epaimahaia eta aukeraketa-irizpideak
- 6.- Zer-nolako proiektuak garatu dira aurretik egonaldi mota hauetan?**



1.- Nortzuk egiten dugu deialdi hau?

Wikitoki Elkarte - Elkarsorkuntzarako Laborategia, diziplinarteko elkarlanaren inguruko jarduteen laborategia gara, kultura-ekintzaren, performatibitatearen, kodiseinuaren, giza-berrikuntzaren, garapen komunitarioaren, ekonomia solidarioaren edo teknologia askeen artekoa.

Izaera autokudeatua duen lanbide-komunitatea, San Frantzisko auzoan (Bilbon) non 2014tik aurrera ANTOLAKUNTZA (harremanak, gobernantza, erabakiak hartzea, sareak), EKOIZPEN (ikerketa, sorkuntza, lana, erakusketa, banaketa, kontsumoa) eta JABETZA (prokomunak, jabetza partekatua, ekonomia kolaboratiboa) moduen inguruan esperimentatzen den.

Wikitokiri eta laborategia osatzen dugun pertsona anitzei buruz gehiago jakin nahi baduzu, hau egin dezakezu:

- Ikusi gure webgunea.
- Bideoak ikusi, zeinetan [*Wikitoki zer den*](#) eta [*Wikikrazia*](#), gure antolatzeko eredua, zertan datzan azaltzen dugun.
- Entzun Wikisoinuak podcastaren lehenengo atala, [*Wikitokiren orainaldiari, iraganari eta etorkizunari*](#) buruzkoa.
- “Un relato colectivo” argitalpena.




Egonaldien deialdi hau Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin antolatzen ditugu, SORGUNE programaren bidez, baita Bizkaiko Foru Aldundiko kultura sailaren eta Bilboko Udalaren laguntzarekin ere.

2.- Zeintzuk dira deialdi honen helburuak?

Esperimentazio irekirako deialdia da WIKIRIKI. Egonaldi-deialdi honek batez ere honakoa bilatzen du:

- **Pertsonak eta taldeak gonbidatzea modu esperimentalean (aplikatua zein ez-aplikatua) jardutera** Wikitokiren ikerketa-ildoekin edo elkarlanaren inguruko arazo zehatzekin harremana duten zenbait aspektuei buruz. .
- **Inguru abegitsua eskaintzea** ikerketarako eta sorkuntzarako baldintzak errazten dituen, ezagutzen, baliabideen eta proiektuen ekoizpena eta trukea sustatzen duena; era berean, elkarlanaren inguruko eragileak eta jardunbideak zentzu zabalean **azalarazten dituen eta euren balioa nabarmentzen duena**.
- **Wikitoki komunitatearen harreman-espektroa zabaltzea** eta horrela eragile gehiagori ezagutzera ematea, kide eta lankide berriak, esperientzien eta ezagutzen transferentzia, beste arloekiko lotura,... bilatzeko.



3.- Zeintzuk dira egonaldien ezaugarri nagusiak?

> Nori dago zuzenduta deialdia



WIKIRIKI lehia askeko deialdia da zeinean **edozein motako pertsonak eta taldeek (formalek zein informalek) parte hartu har dezaketen**, zeinen jarduera ikerketara, sorkuntzara edo sormen aplikatura lotuta dauden zenbait arlotan, hala nola, arte performatiboetan, gizarte-zientzia esperimentaletan, teknologia askeetan,...

Diziplina-eremuak ez du ardurarik guretzat, proposamena baizik.

Funtsezkoena da hautagaiek euren motibazioa transmititzea eta Wikitokiren filosofiarekin eta inguruarekin bat doan proposamena aurkeztea. Bestalde, Parte hartzeko ez daude faktore murriztailerik adinari, generoari, jatorriari edo aurreko esperientziari dagokienez, baina Wikitokitik bultzatzen dugun ekintza-multzoaren oreka zaintzen dugu dibertsitateaz bezainbatean.

> Izaera esperimentala eta landu beharreko gaiak

WIKIRIKI deialdia izaera esperimentaleko eta edozein formatuko proposamenetara zuzenduta dago ,zuzenean edo zeharka, Wikitokiren ikerketa-ildoekin eta interesekin harremana dutenak eta honakoa lantzen dutenak:

1. Aukerak trantsizioan dagoen munduaren aurrean (espekulaziozko proposamenetatik zehatzenera eta aplikatuenera).
2. Antolakuntza-, harreman- eta lan-eredu horizontalak eta banatuak.
3. Ekoizpen-eredu kooperatiboak, askeak eta irekiak (ekonomia solidarioaren, elkarlanekoaren, P2P... inguruan).
4. Bizitza erdian jartzen duten giza-erreprodukzioko ereduak (arreta jarriz harremani, estimuei eta zaintzari, etika feministari, permakulturala denari...).
5. Wikitoki dagoen auzoko (Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala) gizarte- eta kultura-testuinguruarekin eta eragileekin lotutako proposamenak.
6. Wikitokin euskara erabiltzea normalizatzeko ekintzak.
7. Sortzen ari diren teknologien erabilera kritikoa (adimen artifiziala, gauzen internetea, datu irekiak, errealitate birtuala eta gehitua, blockchaina...) jardunbide parte-hartzaileetan eta elkarlanekoetan.
8. Izaera fisiko edo bisuala duten esku-hartzeak Wikitoki espazioan (gune komunak, bainugela, patioa...).
9. Kultura-esperimentazioa, elkarlanarekin, testuinguruarekin edo Wikitokiren esperimentazio-ildoekin lotutako subjektibotasun berriak ekoiztea.
10. Zenbait diziplinen arteko elkarriketa, hibridazioa eta elkarsorkuntza (zenbait jakintzak osatzean errazten).
11. Jolasa dinamika, tresna, bizimodu eta mundua interpretatzeko modu gisa.

Aurreko zerrendaren helburua da proposamen motak kokatzea, zeinei zuzentzen garen, baina ez da inola ere baztertzailerik. Deialdia irekita dago elkarlana beste ikuspuntutatik esploratzen duten proposamenetara eta, ohi bezala, askotan bilatzen duguna eta eskatzeko gai garena ez datoz bat. Hortaz, **espero dugu bakoitza aske sentitzea bere ustez egokiena proposatzeko.**

Proiektuek edozein formatu izan dezakete, gutxi gorabehera konbentzionala bada:: ikerketa aplikatua, joko bat, altzari bat, dinamika performatibo bat, fotoelektriko bat, talde-esperimentuak, talde-esperimentuak, ospakizuna, bideo-tutoriala, errezeta liburua, app bat, ikasketa-komunitatea, abesti batzuk, txango bat,...



Proiektu berriak edo abian dauden proiektuak izan daitezke, aukera baldin badago horien fase berria edo alderdi zehatza Wikitokiren esparruan garatzeko.

Azkenik, gomendio orokor gisa, Wikitokin **GAUZA GUTXI, HOBETO EGINDAKOAK** printzipioa defendatzen dugu (kalitatea lantzea, xehetasunak zaintzea, zerbaiten sakontzea, proposamen baten zenbait iterazio egitea,...). Eta egonaldiekin dugun aurreko esperientzia kontuan hartuta, orokorrean, proposamenek hobeto funtzionatzen dute fronte ugari ukitu orde ez esperimentazioa zerbait zehatzera bideratzen badute.

> Espero diren emaitzak

WIKIRIKIk izaera esperimentalak dauka; hortaz, ez dira espero emaitza zehatzik edo aurrezarriak; baina bai egonaldian proposamenaren garapena edo proposamena testatzea nabarmentzen duen prozesua garatzea.

Aurrerapen horrek egonaldiaren **amaierako itzulkina edo entregagaia sortu** beharko du, zeinaren ezaugarriak anitzak izan daitezkeen eta proposamen bakoitzaren izaeraren mende egongo direnak.

Sortutako lanaren jabetza egilerena izango da, baina bere osotasuna edo zati esanguratsu bat **lizentzia askepean** eskuragarri izan beharko da (adibidez, Creative Commons, GPL,...), egindakoa berrerabiltzea, hobetzea eta transferitzea baimentzen dutenak.

Gainera, burututakoari erreferentzia egiten dio edozein argitalpenean ondorengo legenda gehitu beharko da: *Wikitokin WIKIRIKI esparruan garatutako proiektua, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin antolatuak, SORGUNE programaren bidez, baita Bizkaiko Foru Aldundiko kultura sailaren eta Bilboko Udalaren laguntzarekin ere.*

> Baliabide erabilgarriak

WIKIRIKIrekin, Wikitokitik, baldintza batzuk eskaini nahi ditugu, zeinei esker denbora askatu, baliabideak mobilizatu eta esperimentaziorako itzulkin mesedegarria aurkitu.

Deialdi ireki hau garatzeko aurrekontua **12 000 €-koa da (zergak barne), gutxienez 4 proiektu garatzeko, proiektuko 3000 €-ko aurrekontuarekin gehienez**. Ordainketa faktura bakarrean egingo da, % 50 hasieran ordainduko da eta gainerako % 50 egonaldia amaitzean.

Wikitokitik, besteak beste, honakoa eskaintzen da: **espazioetara sartzeko eta baliabide materialak zein inmaterialak erabiltzeko aukera, egonaldian zehar eskainitako laguntzaz gain** (laguntza hau proiektu bakoitzaren izaeraren menpe egongo da eta kasu bakoitzean moldatuko da —gutxienez hasierako bilera eta beste bat erdiko fasean izango ditu—).

> Komunikazioa eta aurkezpena

Wikitokin elkarlanean, irakaskuntza partekatuan eta kode irekian aritzen gara.



Talde-adimenean eta ekintzen eta zentzuen mailen baturan sinesten dugu. Horregatik, garrantzia ematen diogu prozesuak zein emaitzak partekatzeari. Horretarako guztirako, esperientziak komunikatzeko eta partekatzeko espazioak eta momentuak sortzen ditugu. Logika horretan, WIKIRIKIn aukeratutako eragileek honakoa hitzemango dute:

- Aurkezpen publikoa egingo dutela egonaldiak amaitzean (batera baloratuko da aurkezpenaren formatua).
- Materialak erraztuko dituztela prozesuan zehar burututakoa komunikatzeko eta emaitzen aurkezpenerako (irudia, testuak, eskemak,...). Komunikazioa batez ere Wikitokiren webgunean, sare sozialetan eta hedabide digitaletan egingo dela.
- Eskuragarri egongo direla Wikitokitik proiektura lotutako edukiak sortzeko (elkarrizketa + argazkiak + bideoa).
- Lizentzia askeak erabiltzera dibulgazio zein komunikazio edukientzat.



5.- Nola parte hartu?

> Egutegia

- Deialdia **2021eko irailaren 7a eta 30a artean** irekita egongo da (**23:59ak arte**).
- Ebazpena **2021eko urraren 15ajakitera emango da**.
- **Egonaldiak bi txandatan hasiko dira, lehenengoa 2021eko urriaren 25etik aurrera eta bigarrena 2022ko urtarrilaren 17tik aurrera**. Egonaldi bakoitzak gehienez 2 eta 4 hilabete arteko iraupena izan ahalko du (datak eta epeak proiektu bakoitzarekin zehaztuko dira).

> Aurkezpen-modua



Eskaerak euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztuko dira mezu elektronikoren [bidez wikiriki@wikitoki.org](mailto:wikiriki@wikitoki.org) helbidean, gaian aurkeztu den eragilearen izena eta 2021 Egonaldiak erreferentzia adieraziko dira, hau da: “Zurelzena, WIKIRIKI 2021-2022”. 2021eko irailaren 30eko 23:59ak baino lehen jasotako eskaerak baino ez dira onartuko. Dokumentazio osoa **dokumentu bakarrean aurkeztuko da PDF formatuan (gehienez 5 MBko pisuarekin), eskatutako edukira eta informazioaren luzera moldatuko dena.** Zenbait formatutan, beste edukira egindako erreferentziak esteken bidez gehituko dira PDF horretan.

Eskaera-dokumentuak honakoa izan beharko du:

- **Izenburua.**
- **Laburpen-fitxa:** Proposamenarena + Aurkeztu denaren eragilerena (gehienez 75 hitz).
- **Proposamenaren deskribapena,** horren motibazioa, helburua, espero den emaitza, beharrak,... barne (gehienez 1000 hitz, irudiekin edo eskemekin batera joan daitezkeenak, proposamena ulertzea laguntzen dutenak).
- **Kronograma** proposamena garatzeko (egonaldi bakoitzak 2 eta 4 hilabete arteko iraupena izan dezake). Garrantzitsua da kontuan hartzea bi txandatan hasiko direla, lehenengoa 2021eko urriaren 25etik aurrera eta bigarrena 2022ko urtarrilaren 17tik aurrera (datak eta epeak proiektu bakoitzarekin zehaztuko dira).
- **Aurrekontua** (gehienez 3000 € proposamen bakoitzeko, ordainsariak, ekoizpena, desplazamenduak eta dietak barne, zergak barne).
- Pertsonaren edo kolektiboaren **aurkezpena edo curriculum**a (2 orrialde gehienez).
- **Pertsonaren edo kolektiboaren administrazio-datuak** (nortasun juridikoa ez duten kolektiboari pertsona bat izendatuko zaie arduradun gisa; solasaldirako, fakturak igortzeko,...) eta harreman-datueterako (maila, telefono zenbakia, web, sare sozialak).
- **Eranskina aurreko proiektuekin,** eragilearen ibilbidea aintzat hartzeko lagungarriak izan daitezkeenak (aukerakoa).

Edozein zalantza edo argibiderako Laura Fernándezekin, Wikitokiren egonaldien arduradunarekin, harremanetan jar zaitezke hemen: wikiriki@wikitoki.org.

Irailaren 16a online saio ireki bat burutuko dugu parte-hartzean interesa duen edonork aukera izan dezan deialdiari buruzko zalantzak galdetzeko edo argitzeko. Saioa bideokonferentziaren bitartez burutuko da [esteka honen](#) bidez.

> Epaimahaia eta aukeraketa-irizpideak

Wikitokiren kide aktiboz osatutako komitea arduratuko da proposamenak balioesteaz eta aukeratzeaz.

Ondorengo irizpideak erabiliko dira:


- **Proposamenaren egokitasuna Wikitokiren ikerketa-ildoan arabera** edo elkarlanari dagozkion arazoan arabera.
- **Wikitokiren testuinguruarekiko ekarpen- eta moldaketa-maila** bere eredua, funtzionamendua edo komunitatea indartzeko edo zalantzan jartzeko; edo beste



eragiletara irekitzen edo bere harremanak dibertsifikatzen laguntzeko. .

- Eskuragarri dauden baliabideen **bideragarritasuna** eta moldaketa-maila (aurkeztutako kronogramaren eta aurrekontuaren arabera).
- **Dibertsitatea** proiektuen tipologiari eta diziplina-esparruei dagokienez, baita aukeratutako eragileen adinari, generoari jatorriari edo aurreko esperientziari dagokienez ere, Wikitokin sustatzen ditugun ekintzak direla eta.

Beharrezkoa izatekotan, epaimahaiak eskatzaileei eskatu ahalko die edonolako argibide, zehaztasun edo informazio osagarri, proposamena modu egokian balioesteko.



6.- Zer-nolako proiektuak garatu dira egonaldi mota hauetan?

Aipatzen ditugun egonaldiak hobeto ulertzeko, aukera dago 2016 eta 2020 artean, Wikitoki Egonaldietan garatutako proiektuak ikusteko esteka honen bidez.